



ONDARROAKO UDALA

MOVIMIENTO DE PENSIONISTAS DE BIZKAIA / BIZKAIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUA

Pentsio Mugimendua kalean dago 2018ko urtarrilaren 15etik.

Denbora aurrera doa, hauteskunde mota asko egin dira azken garaian eta gure mobilizazioekin lortutako emaitzak ez dira sendotu.

Prekarietatea eta pentsioen murrizketa ekarri diguten Lan eta Pentsioen Erreformatik, indarrean daude, baita bere ondorioak ere. Gero eta adineko pertsona eta jubilatutako gehiagok osatzen du, gizartetik baztertuta dagoen multzoa, bizitza duin eta autonomia izateko aukerarik gabe.

Dagoeneko, promesek aspertzen gaituzte eta ekimenak nahi ditugu. Gure aldarrikapenek, behingoz, erantzuna jaso dezaten nahi dugu eta erantzun horiek bete daitezzen, behar den dirua bideratzea behar dugu eta legalki betirakotzea, guretzat eta etorkizuneko belaunaldientzat.

Gure eskakizunak, oinarrizko justizian errotu eta gizarte demokratiko eta bidezko baten konpromisoan oinarritzen direla uste dugu.

Horregatik, erakunde municipal honi eskatzen diogu:

Pentsiodunen Mugimenduaren aldarrikapenak bultzatzea, hala nola:

1. Pentsioen Banaketa Sistema Publikoa eta pentsio duinen defentsa egitea.
2. Europako Gutun Sozialaren eskaerak bete eta diru-sarrera nahikoak ezartzea:
 - . Lanbide-arteke gutxiengo soldata 1200 €.
 - . Gutxiengo pentsioa, 1080 €.
 - . Pentsioen igoera, automatiko eta iraunkorra izatea, gutxienez, KPlaren arabera eta Legez bermatua.
3. Prekarietatea ugaritu duten lan-erreformak eta 2011 eta 2013ko pentsioen erreformen alde kaltegarriak ezabatzea.
4. Soldata eta pentsioen generoko arrakalekin amaitzea.
5. Zigorrik gabeko aurrejubilatzea, 40 urte kotizatuak dituztenentzat.
6. BASE eta pentsio plangintza pribatuen aldeko anura fiskalik ez.

Mendekotasun egoeran bizi diren pertsonentzat, legez bermatzea zerbitzu SOZIO-SANITARIO eta publikoen bitarteko prestazioak, diru publikoz ordainduak.

Adineko pertsona eta jubilatuentzako plangintza berezia egitea, beraien bizitza-baldintzak hobetze aldera eta horrekin batera, zerbitzu eta prestazio horien inguruan, Udaletxetik bideratutako informazio eta aholkularitza plangintza, antolatzea.

Herritarrei dei berezia egitea, pentsiodunen mobilizazioetan parte hartzeko eta bereziki azaroan egingo den mobilizazioarekin konpromisoa hartzeko.